

RAINBOW HAS: AZTERLANAREN LABURPENA



Sarrera orokorra eta metodologia

Rainbow Has¹ proiekturako eginiko ikerketa lanaren laburpena dugu honako dokumentua hau, familiek aniztasun afektibo sexualaren eta homofobiagatiko jazarpenaren inguruan esaten dutena eta eskoletan, familietan eta familien elkarteetan tratatzeko moduak ezagutu eta aztertzeko xedearekin.

Horretarako, lehenik eta behin dokumentatzeko lana egin da, bibliografia berrikusita eta Euskadiko eta Estatuko errealitatea testuinguruan kokatuta jorratu beharreko

gaietan. Bigarrenik, metodologia kualitatiboa erabili da, ikerketa teknika hauek jarraituz:

- 10 elkarrizketa familiei oro har.
- Homofobiagatiko jazarpena jasan duten familien kasuen 5 azterlan.
- Familia homoparentalen kasuen 5 azterlan.
- 3 eztabaida-talde familien elkarteekin, LGTB taldeekin eta irakasleekin.

Testuinguruan kokatzea

Gizarteak homosexualitatearen eta familia homoparentalen inguruan duen onarpena nabarmen handitu da azken hamarkadan Espainian, batez ere gazteen artean. Homosexualen arteko ezkontza eta familia homoparentalen araudia ahalbidetu zituen 2005eko Legearen bidez, eztabaida suspertu zen gizartean, LGTB pertsonak gehiago ikusaraziz eta haien harremanak eta familia ereduak gehiago onartuz. Gizarte onarpen hori handiagoa izan da gizonezkoen homosexualitatean, jendaurreko presentzia handiagoa izan baitu. Transexualitateak, ordea, askoz errealitate ezezagunagoa du, eta transexualei buruzko irudipenak inpartzialak eta oso estereotipatuak dira.

Familiari dagokionez, hainbat aldagai erakusten dituzte eginiko azterlanek, kideetako baten homosexualitatearen aurrean dagoen laguntza maila eta onarpena baldintzatzen dituztenak. Alde batetik, instituzio kontserbadoretzat jotzen da familia, non generoen heteroarauak oso errotuta dauden. Hori dela-eta, familia ez da toki atsegina homosexualentzat homosexualak direla adierazteko. Eskolako adinean diren nerabeentzat, aldiz, onarpen handiagoko eremua omen da familia, eskolako lagunekin baino gehiago, batez ere nesKentzat.

Familia nuklear heterosexualaren idealak indartsu jarraitzen du gizartean, Espainiako edo Euskadiko egungo egoerarekin bat ez badator ere. Familia homoparentalak legeztatu zirenetik, haurrak hazteko familia eredu horren egokitasunari buruzko eztabaida publikoak sortu dira. Kezka horiek oihartzuna izan dute arlo akademikoan, zeren eta azken urteotan hainbat azterlan argitaratu baitira eta haurrentzat ekar litzakeen ondorio txarrak gezurtatu baitira azterlanotan.

¹Rainbow Has proiektuaren helburu nagusia eskolen eta familien arteko itunak sortzea da, haurrek eta nerabeek aniztasun afektibo sexualerako dituzten eskubideen egoera hobetzeko.

Aniztasun afektibo sexualaren tratamendua eta hezkuntza komunitatean dagoen genero nortasuna direla-eta, homofobiagatiko jazarpena eta horren ondorioak ezagutzea izan da eginiko azterlan gehienek ardatza. Ondorio hau eman dute: ohikoa izan arren, ez dela identifikatzen eta ez zaiola kontra egiten hezkuntza komunitatetik. Alabaina, oso gutxi idatzi da familien irudipenei eta homofobiagatiko jazarpenari aurre egiteari buruz; izan ere, kasu horietan familiaren laguntza eta onarpena izan beharra baizik ez da azpimarratu.

Sexualitateari, homosexualitateari eta transexualitateari eta bullying-aren kontrako protokoloak eta zerbitzuak, gehienbat, irakasleentzat eta ikasleentzat dira, eta ez dugu familiek ere barne hartzen dituzten esperientzien berri. Nolanahi ere, familien elkarteek eta familientzako eskolek ere egiten dituzte hainbat lan-ildoren gaineko jarduerak eta prestakuntza hitzaldiak, non aniztasun afektibo sexuala eta genero nortasuna txerta litekeen. Hauexek izango lirake: homofobiagatiko jazarpena, bizikidetzaren ikasgelan, gatazken kudeaketa positiboa, baterako hezkuntza, sexualitatea, aniztasunaren kudeaketa eta, horren barruan, familiarena.

Familiek aniztasun afektibo sexualari buruz esaten dutena

Sexualitatearen tabua bizitzako eremu guztietara hedatu da, eta familiako harremanetan ere badu eragina. Izan ere, nahiz eta familiek uste duten lagundu egin behar dutela seme-alabek sexualitate segurua izan dezaten, ez dute familia barruko elkarrizketarik horretarako, eta uzkur agertzen dira seme-alaben sexualitatearen eta harreman sexualen inguruan. Gainera, gehienak ez daude jabetuta honetaz: sexualitatea beren beregi tratatu ezean, sexualitatearen tabuari eutsi eta transmititu egiten da. Halaber, ez dute uste ere eguneroko jardunek genero-rolak eta sexuaren araberako arau desberdinak iraunarazten dituztenik.

Heterosexualitatea arauaren gunetzat ageri da eta, beraz, familia gehienek beren gain hartzen dute seme-alaben heterosexualitatearen presuntzioa. Nolanahi ere, homosexualitatea beste aukera pertsonal bat dela onartzen dute, baina nolabaiteko etsimendua adierazten dute haien seme-alabek ari direnean. Zenbait gizonek, gainera, jarrera plumofoboak erakutsiko dituzte, eta ezegokitzat jotzen dute LGTB kolektiboa eta haien aldarrikapenak ikustaraztea.

Biko sistema horiek, hots, feminitatea eta maskulinitatea oso errotuta daude gure gizarte testuinguruan, baita haien osagarritasuna ere. Gizon homosexuali buruzko estereotipoetan, zuzenean aipatzen dira ustez emakumezkoenak diren ezaugarriak, eta biko sistema ezartzen zaie familiei genero roletan (betiere honako suposizio honekin: kide batek amaren eginkizunak betetzen dituela, maitasunarekin eta zaintzarekin lotuak, eta besteak aitari dagozkionak, hots, autoritatearekin eta erantzukizunarekin identifikatuak). Gainera, bigeneroko eredu hori botere eta hierarkia harremanetan oinarrituta egituratu da, eta gizonezkoak ditu gizarte onarpen eta ospe handienak. Hala, emakumeen homosexualitatea askoz gehiago ezkututzen da eta, beraz, ez dago hain onartuta eta aintzatetsita.

Harremanetan generoen heteroarauen gaineko ikuspegiaren jarraipena izango litzateke familia nuklear heterosexualaren ereduak. Izan ere, nahitaez Euskadiko egungo testuinguruan hainbat famili eredu dagoen, biko sistema hori oraindik ere jotzen da haurrak hazteko idealtzat eta baliozkoentzat. Guraso homosexualen familiek diote onartuta daudela beren inguruan, baina aitortu egiten dute, batez ere gizonek (gizarte

mailan ez dira hain gaitzat hartzen haurrak zaintzeko), presioa sentitu dutela frogatzeko haien familiak inguru seguruak direla haien seme-alabentzat.

Hezkuntza komunitatea aniztasun afektibo sexualaren aurrean

Adostasun zabala dago familiek hezteko eginkizun nagusia izatearen inguruan, baina iritzi ezberdinak daude eskolak haurren hezkuntzan eta sozializazioan izan behar duen eginkizunari buruz. Zenbait familiak ikuspegi utilitarista dute hezkuntza arautuaz, eta curriculumeko arloak eta etorkizuneko lanbide-bizitzarako prestakuntza baliagarria lehenesten dituzte. Hala ere, eskolak bizikidetzarako eta elkarren errespeturako balioetan sozializatzeko duen eginkizun garrantzitsua azpimarratzen dute. Familia homoparentalek neurri handiagoan nabarmentzen dute eginkizun hori bikote heterosexualekin osaturiko familiek baino, eta eskolak egungo aniztasuna onartu eta balioetsi beharra gehitzen dute.

Familiarik gehienek eskolaren esku uzten dute sexu hezkuntzaren zatirik handiena. Ikasgelan lantzen diren edukiak eta materialak ezagutzen ez dituztela aitortzen dute, baita horietan arreta handirik jartzen ez dutela ere, baina egokiak direlaketan daude. Familia homoparentalek, ordea, interes handiagoa erakusten dute sexualitatearen gaineko materialarekin, sexu harremanekin eta familia ereduekin. Gainera, aniztasun afektibo sexuala edo familiarra agertzen deneko materiala erabiltzeko eskatzen diete zenbaitek irakasleei.

Aniztasun afektibo sexualaren tratamenduari dagokionez, familiek uste dute gai-multzo globalagoan txertatu beharra dagoela hala nola aniztasuna errespetatzea eta balioestea, sexu hezkuntza edo baterako hezkuntza. Nolanahi ere, lehentasunezko gaia ez dela irizten diote, eta argudio hau ematen dute: LGTB kolektiboa nahikoa onartuta dagoela gizartean eta eskolak gune seguruak direla haur guztientzat. Familia homoparentalek, LGTB pertsonen familiek eta gaian sentsibilizaturiko irakasleek, ordea, aniztasun afektibo sexualari marko propioa eman beharra azpimarratzen dute eta, aldi berean, zeharkakotasuna sakondu.

Irudipen ezberdin horiek agerian gelditzen dira ere irakasleek aniztasun afektibo sexuala ikasgelan tratatzeko eta homofobiagatiko jazarpenaren kontra egiteko duten gaitasunari buruzko iritzien inguruan. Familia gehienek uste dute irakasleak nahikoa sentsibilizatuta eta prestatuta daudela, baina irakasleek eurek aitortzen dute mugatuta eta segurtasunik gabe sentitzen direla gaiari heltzeko. Bestalde, familia homoparentalek onartzen dute irakasleek asmo ona erakusten dutela, baina bat datoz haiekin esatean modu seguruan eta eraginkorrean lantzeko prestakuntza falta zaiela.

Bestalde, jakin ahal izan denez, familien eta eskolen arteko harremanen eredia banaka ematen da, eta haurren emaitza akademikoak eta jokabide gatazkatsuak dira konpartitzen dituzten gai nagusiak. Sexualitatearen tabua bi eragileon arteko harremanetan ere ageri da, zeren eta haurren sexualitateari edo sexu orientazioari buruzko beren beregiko aipamenak egitea saihesten baitute bileretan. Ez aipatze hori agertzen da homofobiagatiko jazarpenetan ere, eta horrek zaildu egiten du modu integralean lantzea. Gainera, homofobiagatiko jazarpena jasan duten seme-alaben hainbat familiak ez dute eskatu irakasleek edo ikastetxeak esku hartzea, edo hala egin dutenean, ez dute lortu haien partaidetza nahikoa.

Azkenik esan beharra dago ikasleen gurasoen elkarteak, gehienetan, ez direla eragile aktiboak eskolen funtzionamenduan eta dinamiketan. Elkarteetako kideek onartzen dute

interes falta handia dagoela organoetan parte hartzeko, eta jarduera guztien ardua gutxi batzuen pentzura izaten dira. Zenbait ezaugarriren arabera egiten dira familiek bizikidetzaren edo jazarpenaren gaineko gaietan esku hartzea: antzekotasun taldeak, antzeko interesak izatea edo seme-alaben arteko adiskidetasun harreman izatea, baina ez ikasleen gurasoen elkarrekin bidez.

Halaber, ikasleen gurasoen elkarrekin sexualitateari eta aniztasun afektibo sexualari buruz eskaintzen duten prestakuntza da gutxien eskatzen dena. Familiek ez dute interesik gaiarekin, zeren aniztasun afektibo sexuala eta genero nortasuna gai pertsonaltzat eta pribatutzat hartzen baitira, familia gehienek kezkekin zuzenean lotuta ez daudenak. Familia homoparentalek, oro har interesik ez dagoela jabetuta, ez dute uste legitimatuta daudenik sexu edo familia aniztasuna haurren gurasoen elkarrekin tratatzea proposatzeko, baina gaia lantzea interesgarria izango litzatekeela deritze.

Homofobiagatiko jazarpena

Jazarpena natural bihurturiko jarduna dela ageri da, justifikatua. Familia gehienek adingabeen arteko tratatu txarrak normalizatzen dituzte, eta ezberdina dena baztertzeko joera naturala dagoela argudiatzen dute, haurren ustezko krudelkeria edo, are gehiago, giza harremanen ordena naturalaren baitan kokatzen dute. Gainera, irainak edo erasoak sistematikoki izaten direla onartuta ere (berbaz eginikoak nahiz fisikoak), batzuek ez dute "jazarpena" edo "bullying"-a deitu nahi. Hala, ez da identifikatzen, jazartzen duena goraiatu eta biktima bakartzen da. Pairaturiko jazarpena justifikatzeko joera ere izaten dute homofobiagatiko jazarpena jasan duten seme-alabak dituzten zenbait familiek; haien seme-alabak gatazkei aurre egiteko ahulak direla argudiatzen dute. Are gehiago: lagun taldean integratzeko nahikoa ahalegin ez egitearen erantzukizuna uzten dute haien bizkar.

Illo horretan, jazarpena bultzatzen duen faktore gisa agertzen da ahultasun fisikoa edo emozionala iritzi gehienetan, eta "ezberdina" izatea edo arauaren esparrutik kanpora egotea ahulezia izan daitekeela onartzen da. Nolanahi ere, familia gehienak ez daude jabetuta genero rolei eta heterosexualitatearen aldeko arauari eusteko dagoen gizarte presio handiaz. Horregatik, garrantzia kentzen diote eredu horrekin bat ez datozen haurrek izan lezaketen homofobiagatiko jazarpenarako arriskuari. Irakasleak, homofobiagatiko jazarpena izan duten haurren familiak eta familia homoparentalak askoz jabetuago daude gizarte presio horretaz eta horren balizko ondorioez.

Izan ere, familia homoparentalek jakin badakite familia eredu ez konbentzionalekoak direla, eta gehienek onartzen dute haien seme-alabak baztertuak izan daitezkeela eredu hori dela eta. Ondorioz, adi egoten dira seme-alabak onartzeko mailekin eta erlazionatzeko dituzten jokabideekin eta moduekin, edo homosexualitatearen edo familia homoparentalen gaia agertzen den eskolan edo lagun artean. Praktikan, harreman estuagoak dituzte irakasleekin, baina jazarpenaren lehen sintomen aurrean jarduten dute eta seme-alabei argudio eta erantzun egokiak ematen saiatzen dira haien familia ereduaren inguruan entzun ditzaketan irainen edo zalantzen aurrean.

Nagusi den maskulinitatearen edo heterotasun ereduaren arabera neurri batean edo bestean jokatzeko ez duten mutilei egindakoak izan dira aztertutako homofobiagatiko jazarpenak. Genero jokamolde maskulinoak femeninoak baino askoz zorrotzagoak dira, eta gizarte estatus handiagoa dute. Hortaz, jokamolde horietatik aparte egoteak ulermenik eza eta gizarte bazterkeria handiagoa dakar. Mutilak izan dira jazarpena egin izan duten

gehienak ere, zeren eta maskulinitatearen eredu nagusi horretatik aparte jartzea, berez, maskulinitatea erakustea baita, indarkeria erabiliz indartzen dena.

Homofobiagatiko jazarpenak badu bereizgarri bat beste jazarpen mota batzuekiko, gehienbat zalantzan jartzen baita jazarpena jasaten duen hauraren heterosexualitatea eta ezinbestean baitakar mahai gainean tabuak jartzea hala nola sexualitatea, homosexualitatea edo genero nortasuna. Kezka eta beldur handiagoak dakarzkie horrek familiei; izan ere, normalean aholkuak eskatzen dituzte sexologia aholkularitza enpresetan edo LGTBei laguntzeko zerbitzuetan. Nolanahi ere, sexualitatea oraindik ere tabua da haurtzaroan, familiek aipatu nahi ez dutena, homofobiagatiko jazarpenaz ari direnean ere bai.

Homofobiagatiko jazarpena justifikatzeko eta estaltzeko testuinguru horretan, zenbait familiek bakartzeko joera dute, eta azkenean ez dute partekatzen ingurukoekin bizi duten egoera, eta ez dira saiatzen laguntza eskatzen arazoari aurre egiteko. Aitortzen dute zalantzak dituztela seme-alabak aukeratzeko askatasunean heztearen edo bazterkeria eta jazarpena ekar ditzaketen zenbait jokabide mugatzearen artean. Ondorioz, banaketa egiten dute eremu pribatuaren eta publikoaren artean; lehenbizikoa askeagoa da, bat-batekoagoa, eta bigarrena mugatuago dago zenbait gizarte arauen aldetik.

Transexualitatea salbuespena da ildo horretan, ikusgarri egiten baita, eta familiek jendaurrean azaldu eta aurre egin behar diote arazoari nahitaez. Halakoetan, familiek ingurukoekin konpartitzen dute egoera, eta hezkuntza komunitateak gaia lantzen saiatzen dira, halako moldez non homofobiagatiko jazarpena prebenitu daitekeen.